

Jose Luis Elorza

PSE-EEKO KIDEA

Zertarako negoziatu ezker abertzalearekin?

N

egoziaketa prozesua amaitu zenean ezker abertzaleko buruzagi batzuek pentsatu zuten gauzek lehen bezala jarraituko zutela. Tentsioa areagotuko zela, baina kapaz izango zirela protagonismo politikoa mantentzeko. Ez zuten kontuan izan tren batzuk pasatzen direnean ez direla berriro bueltatzen.

Euren baza politiko handiena “negoiazioa” zen. Baina negoziazioaren atzetik suposatzen zen beti zegoela sari bat, ETAREN amaiera. Ezker abertzaleko agintearen arabera ETAREN desagertpenaren altxorra mahai gainean jartzeko, etekina atera behar zen negoziatiazioetik. Garbi dago ETAK inoiz ez dituela nahi zituen etekinak lortu orain arteko negoziaketa guztietan.

Zapaterok egin duen ahalegina eskema horren azken aukera izan da. Tre-goia apurtzeko erabakia hartu duten ezker abertzaleko agintariak ez dira konturatu tiroen garaia agortuta dagoela Europan, Gerry Adams konturatu zen bezala. Eta errealtate horrekin konturatzeko gai izan diren agintariak ez dira atrebitu ETARI planto egiten. Emaizta? Gerry Adams Ipar Irlandako Gobernuan –Euskadik duen baino autonomia askoz ere eskasagoarekin– eta Arnaldo Otegi kartzelan.

Une honetan ordea, badago datu bat azpimarratzekoa eta gainera apurtzen duena orain arte erabilitako eskema: “Inork ez du interesik ezker abertzalearekin negoziatzeko”. Bere altxorra, ETAREN desagertpena negoziazioaren ondorio bezala, asko depreziatu da merkatu poli-



DANI BLANCO

tikoan, inork ez du sinesten eskema horretan dagoeneko. Estatuak zertarako negoziatu behar du ezker abertzalearekin orain? ETA desagertzeko? Mesedez... Bitartean ETAK berearekin segituko du, atentatuak egiten. Baina, bateon bat oraindik konturatu ez bada, ETAREN atentatuen ondorio politikoak, askoz ere kaltegarriagoak dira ezker abertzalearentzat Estatuarentzat baino.

Ezker abertzaleak bere aukera eduki du, eta ez nolana hiko gainera. Euskal Herriko indar politiko inportanteenetakoa izateko aukera eduki du. Baina horretarako ETARI lotzen zion zilbor-

hestea eten egin behar zuen eta ez du jakin, ez du asmatu edo ez da atrebitu hori egiten. Orain, ETAK edukiko duen amaiera berbera izango du.

Euskal gizarteak hartu du bere epaia. ETA bera da arazoa eta bizkarrara ematea erabaki du. Aurpegi ematea oraindik arriskutsuegia izan daiteke eta gainera ez dator bat generazio berrien estiloarekin. Komandoa detentitzen dutela? Kanean txiton baina etxean txalo. Mahai nazionala atxilotzen dutela? Kanean txiton eta etxean: “Aizu, aspertuta nago betiko kontuekin, jarri ezazu Buenafuente”. Eta horrela guztiarekin. Agian euskal gizarteak ez da kalera aterako ETAREN

kontra manifestatzera, baina bere barnean, ETAREKIKO eta ezker abertzalearekiko zuen pazientzia agortu egin da. Ondorioz, justizia hauen gainera etortzen denean, jende gehienaren pentsamendua hauxe da: “Hor konpon Maria Anton”. ■

«
Ezker abertzaleak Euskal Herriko indar politiko inportanteenetakoa izateko aukera eduki du. Baina horretarako ETARI lotzen zion zilbor-hestea eten egin behar zuen eta ez du jakin
 »

TXANDAN
 Castillo Suarez



Azzedin oso berandura arte ez zen jabetu etxean hitz egiten zuen hizkuntza ez zela marokoarra, amazigh baizik. Hark uste zuen oso aldaera “pobrea” hitz egiten zuela, eta horregatik ez zegoela modurik Marokoko beste hiztun batzuekin elkar ulertzeko. Maiz ez dugu kontua hartzen Marokon dauden arabieraren aldakiak Koranetik oso ezberdinak direla, bai eta ikastetxeetan erakusten den arabiera jasotik ere. Marokotik heldu diren askoren hizkuntza amazigh da, ez arabiera. Hala ere, horietatik asko ez dira horren jakitun, eta ara-

Beste hizkuntza bat

bat. Amazigh hiztunetako batzuek ikastetxean arabiera klaseak jasotzen dituzte, baina egiazki hizkuntza horrek ez du zerikusirik horiekin. Areago, haiena ez den identitatea indartzeko balio dute arabiera klaseek kasu horietan. Haien ere ez badakite zein hizkuntza den haiena, are zailagoa izanen da guretako jakitea, eta neurriko hezkuntza eskaintza bat eskaini ahal izatea, haien burua ezagutzeko eta, beraz, haien identitatea indartzeko balio dute eskaintza. ■

bieraren aldaki bat hitz egiten dutela uste dute, ez bestelako hizkuntza